

## HEOko azterketa ereduia – Euskara B1 – Idazmena

### 1. ARIKETA: KOPRODUKZIOA

80-100 hitz

Lanean hasi berria zara, zehazki, bi hilabete daramazu. Lore denda batean aurkitu duzu lana, zure laguna den Iñakiri esker. Laneko nagusiarekin oso ongi moldatzen zara eta kontratua luzatuko dizula ere esan dizu.

**Idatzi e-posta bat Iñakiri eta azaldu:**

- Lagunari eskerrak eman.
- Azaldu nolako lana den ( ordutegia, lan mota...) eta nola sentitzen zaren.
- Etokizunean (aurrerago), zer egiteko ilusioa eta asmoa duzun ( proiektu berriren bat).
- Zure laguna gonbidatu zure proiektuan parte hartzera.

---

### 2. ARIKETA: PRODUKZIOA

130-150 hitz

Udan hilabete baterako oporretara joan zinen eta zakurra zakurtegi batean utzi zenuen.

Publikatu zakurtegi horri buruzko iruzkin bat Interneten:

- Zure esperientzia: zure hasierako urduritasuna eta kezka.
- Datuak: prezioa, eskaintza, kalitatea, langileak, zerbitzua, lekua...
- Konparatu azken zakurtegi hau kontratatatu izan duzun beste batekin